



www.begiko.com

Titulo original: REVOLTING RHYMES

© 1982, Roald Dahl Nominee Ltd.

© 1982, Quentin Blake

© Itzulpena: 2001, Joseba Santxo

© Euskarazko argitalpena:

2018, Santillana Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.

Legizamon poligonoa

Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.

48450 Etxebarri

Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-14-8

Lege-gordailua: M-16.311-2017

Printed in Spain - Espainian inprimatua

Lehen argitalpena: 2018ko urtarrila

Sailaren zuzendaritza:

Joseba Santxo eta Maite Malagon

Edizioa:

Ainhoa Basterretxea eta Yolanda Caja

Errealizazioa:

Miren Pellejero

Zuzenketa:

Ane Barrenengoa

Arte-zuzendaritza:

José Crespo eta Rosa Marín

Proiektu grafikoa:

Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega eta Álvaro Recuenco

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea, haren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Errima errebeldeak

Roald Dahl

Irudiak: Quentin Blake

begiko

Mari Errauskin



Mari Errauskin

Ipuin hau badakizu, buruz beharbada,
baina bertsio ona *heavy*agoa da!
Sasi-bertsio hori, zuk entzun duzuna,
deskafeinatu zuten, ez zen hain biguna.
Txarto kontatu zuten, askoz epelago,
haurrak bizi zitezen zoriontsuago...

9

* * *



Hasiera ez zuten aldatu bederen;
halandaze gau batez, ohartu baino lehen,
Ahizpa Zatar maltzurak, harribitxiz lepo,
Jauregiko Festara joan ziren ederto!
Gure Mari Errauskin, bien bitartean,
giltzapean zeukaten soto lohi batean,
aurrean zituela arratoi *punkyak*

- 10 karraskatzen hasita haren oin-azpiak.
Marik esan orduko: «Askatu, arraio!»,
maitagarri jator bat joan zitzaion iaio,
distiraren distiraz bazterrak argituz
eta galdetu zion: «Laztana, zer moduz?».
«Ea nola nagoen diozu benetan?
Nola egongo naiz, ba, kakatza honetan!».
Hormaren kontra jota bi ukabilkada
garrasi egin zuen: «Eraman Festara!
Jauregian badago dantzaleku *guaya*
eta ez dut galdu nahi gaur gaueko jaia!
Soineko bat gura dut, zalgurdi itzela,
urrezko arrakadak, errubi zein perla;
abarketak ere bai, zilarrez josiak,
nylonezko pantiak, estuak, sexyak.

Ziurtatu nahi nuke jantzita horrela
Printzea neronekin gustatuko dela».
Maitagarrik esanda: «Zaude, enetxoa!»,
gogor astindu zuen bere hagatxoa,
eta Mari Errauskin —gaixoa hain zuzen—
tigreme baten pare pistan azaldu zen.

* * *

11

Mari Printzearekin hasi baltseoan
eta Ahizpa Zatarrak begi-erasoan.
Printzeak heltzen zion Maritxuri gogor,
paparra aterata, nahiko erasokor;
gizona han zebilen jan beharrik neska,
arnasestuka eta txistua irenska.
Bat-batean, Maritxuk: «Joño, gauerdia!
Mugitu beharko dut neure ipurdia!».
Baina Printzeak tinko: «Bai zera! Ez gero!»,
orutzen ziolarik soinekotik bero.
Marik oihu batean: «Askatu, piztia!».
Printzeak, tiratuta, urratu janzkia,
eta Maritxuk ospa kulero hutsetan



zapata bat galduta eskaileran bertan.
Printzeak abarketa hartu zuen larri
eta bihotz ondoan jarriz, iragarri:
«Badut honen jabea ezagutu nahia,
bera izango baita nire andregai!
Ate guztiak joko ditut banan-banan;
hunkitu nauen dama nahi nuke eraman!».

- 12 Nola liteke gero —a zer despistea!—
zapata upel baten gainean ahaztea?
Berehala bi Ahizpa Zatarretako bat
—aurpegia zaldartsu zuena erabat—
hurbildu zen hartzera oski hura bera
ondoren botatzeko komunetik behera.
Gero haren lekuan, han inor ez zela,
utziko zuen bere espartin ustela.

* * *

Konturatuko zinen, irakurle lagun,
Mariren egoera jarri dela ilun...



Hurrengo egunean, Printzea jo eta ke
joan zen etxerik etxe eta atez ate.
Etxeetan jendea urduri zegoen:
«Nork sartuko ote du oina erosoan?».
Abarketa zegoen guztiz zabaldua
—oin arrunt bat barruan legoke galduta—.
Zapata zen likitsa, sano usaintsua
—bazuen jabearen izerdi-zantzua—.
Denak saiatu ziren —zer jende oldea!—
abarketa probatzen, alferrik, ordea.
Txandan-txandan heldu zen lehen Ahizpa Zatarra.
Probatuta, Printzeak: «Hau da, kaka zaharra!».
Ahizpak, berriz, pozarren: «Sartu da, hau marka!
Beraz zeurea nauzu, oi Printze ausarta!».
«Bai eta zera ere, sorgina halakoa!
Asmoa dut hemendik desagertzekoa!».
«Desagertu, nolatan, ni hemen utzita?
Ahaztu al zaizu gure betirako zita?».
«Moztu honi burua!», Printzeak agindu,
eta lepoa laster zioten berdindu.
Printzeak esan zuen patxadaz: «Ikusi!
Orain behintzat ez dago lehen bezain itsusi!».

Bat-batean, bigarren Ahizpa Zatarra hor,
zoro baten moduan: «Probatzera nator!»,
«Probatu nahi beste hau?», Printzeak galdetu,
ezpata hartu eta, zazt!, burugabetu.
Burua, lur gainean eginda lau bote,
bilinbolaka joan zen pareta jo arte.

14



Lanean zebilela inoizko estuen,
Marik zarata batzuk aditu zituen.
Ahizparen buruaren boteak, jakina,
eta bere buruan sortu jakin-mina.
«Zer da iskanbila hau?», Maritxuk gelatik,
eta Printzeak zakar: «Isilik, horratik!».
Maritxuren bihotza egin zen txikitu:
«Printze honek buruak bildumatzen ditu!
Nola ezkonduko naiz honekin jakinda
buruek daukatela burutik eginda?».
Printzearen orroa: «Nor da hori, baina?
Moztu haren burua! Moztu, alajaina!».
Orduan Maitagarri, une egokian,
azaldu zen berriro istilu-tokian.
Bere makilatxoa astindurik zirt-zart!,
esan zion Mariri: «Egin eskari bat!
Eskatu beldur barik nahi duzun desira
eta laster batean beteko dut, tira!».
Mariren eskaera: «Maitagarri hori,
ez nuke gura lehengo zuloan erori.
Printzerik ez dut gura, diruak akabo,
halako gozokiak dastatuta nago.

Gura nuke senar bat, prestu bezain ona.
Topatuko bazenit halako gizona...».

* * *

- 16 Minutugarrenean Maritxu Errauskin
ezkonduta egon zen gizon fin batekin.
Haren lanbidea zen marmeladagintza,
aski ateratzeko aurrera bizitza;
eta haien etxea bete zen umorez,
gozaten zuten-eta marmelada janez.

